



ERRESISTENTZIA ARAZO FISIKOA DA

FITXA ARTISTIKOA

Sorkuntza eta interpretazioa:

Maite Aizpurua Olaizola

Bidelagun artistikoa:

Matxalen de Pedro Larrea

Argiztapen diseinua:

Miriam Ubanet

Trailerra:

Zazpi t' erdi

Teaserra eta difusiorako argazkiak:

Yuri Agirre (Kulturaz Koop.)

Musika “Mozarten bibolin kontzertua 3.zk.” (moldaketa):

Asier Renteria

www.mao.eus

Laguntzaileak:

Azpeitiako Udala, Kulturaz
Koop., Zumaiaiko Udala,
Harrobia, Eusko
Jaurlaritza, Horman Poster
kolektiboa



INTERESEKO ESTEKAK


ERRESISTENTZIA ARAZO FISIkoa DA (bideo osoa).

Niessen Auditorioa, 2020ko abenduak 19, Eztena jaialdia 2020.

<https://vimeo.com/499130787> (pasa-hitza eskatu)

TRAILERRA

<https://youtu.be/fBFYSZpkS30> edo <https://vimeo.com/user105690831>



EMANALDIK

<http://mao.eus/agenda/>

KULTURA ESKOLA /Arte-hekuntza / Okerreko ibiltariak, aparteko ibiltariak


<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/-/okerreko-ibiltariak-aparteko-ibiltariak->

www.mao.eus

HEDABIDE ETA SAREETAN

<http://mao.eus/prentsa/>

Erreportaia EITB Kultura



<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/eitb-kultura/sortzaileak/bideoak/osoa/7804677/bideoa-maite-aizpurua-erresistentzia-arazo-fisikoa-da/>

Erreportaia

“Harrobia Transiciones”:

www.youtube.com/watch?v=DNDYNmhS950

Naiz. “Eztenako ziztadak”:

<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201223/eztenako-ziztadak>

Gipuzkoako hitza:

<https://urolakosta.hitza.eus/2020/03/06/maite-aizpurua-bizitzak-beti-itzultzen-gaitu-gorputzera/>

SINOPSISIA

Noiz hasten da promesa bat materia bihurtzen? Nola egin korrika norbere gorputzetik?

Korrika ibiltzea azelerazioari, pausu markatuei men egitea da *running*-aren kultura. Saltaka egiteko ordea, gorputzaren memoriaren txokoetan gelditzera gonbidatzen gaituen antzerki-performantzea da honakoa. Sententzia medikoak, ibilera okerrak, desirak ironikoak eta diziplinamendu ariketak gurutzatzen diren geraleku konkretua arakatzeko parada. Erresistentzia intimoak zeharkatu eta disidentziarako agertokiak asmatzea “diskapazitatea” kontzeptua barrutik lehertzeko. Makinaren dardara eta mamuak konpartitzea.

Azkarrago harrapatzen ei zaio gezurtiari herrenari baino. Ibilian-ibilian baina, egia entrenatzen den gezurra besterik ez da. Martxan dabilen promesa.



*"Bizitza arazo fisikoa
da. Beti itzultzen
gaitu gorputzera.
Gorputza,
erresistitzeko,
ibiltzeko alternatiba
bakar hori.
Noiz arte iraungo du
zure gorputzak?"*



PROIEKTUAREN IBILBIDEA



Noiz hasten da promesa bat materia bihurtzen?

Arte Dramatikoko Goi Mailako ikasketetan (Dantzerti, 2019) titulatzeko burututako ikerketa performatiboa abiapuntu, urte beteko ibilbidea izan duen sorkuntza proiektua da honakoa. Urte eta erdiko ibilbidean hainbat agenteren babesa eta laguntza jaso du:

- Azpeitiako Sormen Beka 2019.
- 37. Euskal Antzerki Topaketetan parte hartzea *Sortzaile Berrien* sekzioan egonaldi irekiera burutuz (work in progress).
- Harrobia Eskenaren Transiciones 2019 programan hautatutako proiektua.
- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren onuraduna, “Ekoizpena eta banaketa I, 2020”.
- Horman Poster kolektiboaren laguntza jarraia alor artistikoan eta ekoizpenean.
- Egonaldiak: Dinamo Sormen Gunea eta Soreasu Antzokia (9 aste), Aita Mari Antzokia (4 aste), Harrobia (aste 1).
- Euskal antzerkigintza garaikideko jaialdietan parte hartzea: Eztena jaialdia 2020, Zurrumbilo Jaialdia 2020.

Nola egin saltaka norbere gorputzetik?

Running-a gorputzen normalizaziorako diziplina teknika da egunotan. Korrika makinak berriz, XIX. Mendeko Ingalaterrako kartzeletan presoak zigortzeko asmatutako oinezko errotan du jatorria. Bi elementu hauek elkartuta egungo gizartearen promesa erreproduzitzen da eszenan: norbaitek korrika egingo du makina gainean, eta gorputz horren aktibitatea funtzionala, errentagarria eta indibiduala izango da. Zer gertatzen da ordea interprete herrena martxan dabilen korrika makina baten aurrean jartzean? Zein aukera agertzen dira normaltasuna zalantzan jartzeko? Nola desintegratu dezake perfekzio fisikoaren promesa hori?

Ekintza burutu aurretik gelditu eta galdera horretan arakatzea du helburu antzezlanak.

Interprete erren, lodi eta emakumezko gisa sailkatuak, korrika ekintza estereotipatu eta mekanikoa izatetik existentzia eta baldintza konkretu batzuetan burutzen den esperientzia bezala ikertzen du.. “Desgaitua” izendatu dutenaren gorputz disidente horrek bere memoria korporala berreskuratu, medikuntzaren sententziei aurre egin eta narrazio eta autonomia propioa eraikitzeko saiakera da antzezlanak.



GALDERAK

1/

Nondik heldu korrika egiteari herrena izanda? Debekutik, autoezagutzatik, desiratik, ezinetik, jolasetik, arriskutik, kritika sozialetik ...?

2/

Zein da ez-gaitu izendatutako gorputzen potentzia politikoa eta eszenikoa?

3/

Nola berreraiki norbere gorputzaren narrazio propioa? Zein paper jokatzen dute gorputzaren memoriak, intimitate biografikoak eta gizarteak horretan?



"Herrena izatea pribilegio bat
da: bipedoa zera.
Lisiatua zera, baina erdizka.
Pena eman dezakezu, baina
neurrian.

Berezitxoa, baina atal guztiduna.
Balantzaka zabilta, baina zutik.
Anormala, baina integratua.
Disidentea, baina anbigua.
Amorfoa, baina sexya.
Normala, baina bi paso atzetik
dabilen hori.
Ez biktima, ez borreroa.

Kolektiborik, identitate
propiorik ez duen
sasi-elbarritua. Ageriko
ikusezina."



ZER DA? 9 GAKO

- 1 Desgaitasunaren kontzeptua lehen pertsonan eta gorputzetik **lehertzeko-hausnartzeko** saiakera. **Ahalduntze ariketa** gure bizitzen eta gaitasunen narrazio propioa eraikiz.
- 2 Korrikaren bitartez **gorputza eta makina** harremanetan jartzen dituen ariketa sortzailea.
- 3 Herren gisara burututako **zapalkuntzen eta pribilegioen** autokritika eta umore ariketa **feminista eta anti-kapazistista**.
- 4 Artistikoa, biografikoa, intimoa eta politikoa eszenan gurutzatzeko **esperimentu performatiboa**.
- 5 Poesia bisuala, umore absurdoa, bakarriketa eta performanze-akzioa nahasten dituen **lengoaia poetiko arteko euskarazko antzezlan**.

- 6 **Memoria historiko-intimo** berreskuratze ariketa: gorputz disidente eta deserosoen **ikusgarritasuna eta aitortza eszenaratzea**.
- 7 Publikoarekin **konpartitzeko** automaitasun eta **zaintza ekintza**.
- 8 Euskal arte eszenikotako sortzaile eta interprete berrien **profesionalizazioa eta autonomia artistikoa** bultzatzen dituen proiektua.
- 9 Eszenako arlo eta belaunaldi desberdinetako **emakume profesionalen arteko lankidetza** modu propioak eta iraunkorrak eraikitze apustua.

LAN TALDEA



Maite Aizpurua Olaizola SORTZAILEA, INTERPRETEA

Soziologia eta Kultur eta Gizarte Antropologia ikasketak burutu zituen EHU (Donostia, Bilbo) eta UFBA (Salvador da Bahia, Brasil) eta heziketa eta parte hartze sozialaren arloan egin du lan. Mugimendu sozial eta feminista hainbatetan aritua txikitatik, dramaturgia eta interpretazio kode garaikideak, kapazitismoa eta lodifobia bezalako arloak ditu intereseko bere lanean.

Donostiako TAEn (2013-2015, Donostia) hasi zituen ikasketak eta Arte Dramatikoan titulatu zen Dantzertin (2019). Azken urteetan hainbat kolaborazio burutu ditu Metrokoadroka kolektiboaren *site specific* proiektuetan eta egun Horman Poster kolektiboaren kide da. *Antigone edo ezetzaren beharra* bitartekaritza eta sorkuntza proiektuan dabil buru-belarri lanean.



Matxalen de Pedro Larrea BIDELAGUN ARTISTIKOA

Interpretazio gestualean titulatu da Institut de Teatren eta EHU/UPVko Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa Masterrean titulatu. Dantza garaikidean formatua nazioarteko hainbat irakaslerekin. Catalunya nahiz Euskal Herriko antzerki, telebista eta zinema ekoizpenetan interprete gisa lan egin ondoren, 2010ean, Igor de Quadrarekin batera HORMAN POSTER kolektiboa sortzen du. Bertatik proiektu eszeniko esperimentalak garatuko ditu, bai ohikoak diren erakusketa espazioetarako eta baita site-specific-ak ere. 2010-2015 artean Bilboko *muelle3* Dantza eta Sormen Lantegia kudeatu zuen Olatz de Andrés eta Igor de Quadrarekin batera. BI ekimen hauetan bitartekaritza proiektu artistikoetan aritu da.

LAN TALDEA



Miriam Ubanet

ARGIZTAPENA

Cadizekoa izatez, Bartzelonako ITES Eskolan Fotografia Zuzendaritza ikasketak hasi zituen 2001an eta ondoren TTE-n (Taller de Tecnología de l'Espectacle) argiztapen eta soinu ikasketak burutu zituen (2005). Kataluniako musika jaialdi, TV3 eta antzokietan egin zuen lan 2003 urtetik aurrera Aurora Il·luminació, Albadalejo Il·luminació, Triple onda, Grup Focus, Fluge eta Dushow bezalako enpresetan.

2006an Circ Circ-en biretan lan egiten hasi zen eta Festival LEM-eko (Bartzelona, 2008-2010) argizatzailea izan zen. 2009an *Abrapalabra* (Canal Sur TV) telebista saioan kamera laguntzaile bezala aritu zen eta 2011an El Molino-ko (Barcelona, Parallel) Argiztapen Zuzendari bezala hasi zen lanean. 2013an hainbat antzerki konpainien arduradun tekniko gisa hasi zen lanean (Cía Mar Gomez, Agnès Mateus eta Quim Tarrida, RetorCia Teatre, Teatreolia) proiektuetan aldi berean Animic-eko(Bcore Disc) diseinatzaile eta tekniko bezala lan eginez.

2014a geroztik Donostian bizi da eta amatasuna eta profesioa uztartzen ditu hainbat euskal konpainiekin lan eginaz: Metrokoadroka Sormen Laborategia, Macarena Recuerda Shepherd, Ze Onda Antzerki Taldea, DesAires Teatro, Goitibera Teatro, Naita produkzioak, Oihana Varela, Maite Aizpurua eta Loraldia produkzioetan besteak beste. Ficoban ospatutako Alarde Perekidearen 20.urteurrenaren ospakizun galaren arduradun teknikoa izan zen.

BESTE KOLABORAZIOAK

Kulturaz kooperatiba: kultura bere osotasunean lantzen duen Azpeitiko eragilea. Besteren artean San Agustin kulturgunea eta Dinamo Sormen gunea kudeatzen ditu, azken urteetan euskarazko kulturgintzaren erreferentzia garrantzitsu bilakatu da . www.kulturaz.eus.

Asier Renteria: musika ekoizpena eta konposizioa lantzen ditu. Ikus-entzunezko eta antzerkirako piezak sortu izan ditu. Arriguri ekoiztetxeko kidea da. www.arriguri.com

Zazpi t'erdia: Pello Gutierrez, David Aguilar Iñigo eta Iñaki Sagastumek osatutako ikus-entzunezkoetako ekoiztetxea. Generoen nahasketa, Zinema esperimentalta, ez-fikzioa eta arte eszenikoen alorrak landu izan dituzte. <https://www.zazpiterdi.com/>

Horman Poster: arte eszeniko garaikideetako kolektiboa,.10 urtez Matxalen de Pedro eta Igor de Quadrak sortutako proiektu eraberritua Xanti Agirrezabala, Jon Ander Urresti eta Maite Aizpurua taldera batzearekin. www.hormanposter.eus

EZAUGARRI TEKNIKOAK

IRAUPENA: 50 min

HIZKUNTZA: Euskara

ESPAZIO ESZENIKOA: 8 X 7 m

(moldagarria handiago eta
txikiagotara)

BEHAR TEKNIKOAK: riderra

eskuragarri hemen:

[http://mao.eus/wp-
content/uploads/2020/12/Erresistentzia
_dosierteknikoa_EUS.pdf](http://mao.eus/wp-content/uploads/2020/12/Erresistentzia_dosierteknikoa_EUS.pdf)



Mamu bat izan nahiko
nuke. Perspektibarik,
helmugarik,
autosuperazioaren
engainurik gabeko
mamua.


Badakit gorriak ikusten
dituztela ikustezinak
direlako.

Baina mamurik herrenenak
ere, hegan egiten du.

KONTAKTUA

E-posta: maiteaizpu@gmail.com

www.mao.eus



Dosier pedagogikoa

OKERREKO IBILTARIAK, APARTEKO IBILTARIAK

Okerreko ibiltariak, aparteko ibiltariak gazteei zuzendutako tailer aktiboa da, **aniztasun funtzionalaren ikuspegia oinarri talde sormena** jorratzen duen tailerra da. Gorputzen aniztasuna sormenerako abiapuntutzat hartuaz, antzerkiaren tresnak erabiliz norbanako eta talde bezala ditugun gaitasun espresiboetan arakatzea du helburu. Aldi berean, gure gizartean **eredutik at dauden gorputzen ikusgarritasuna** bultzatu, eta **esperimentazio artistikoa eta praktika/jolasaren bitartez** balioan jartzeko proposamena da honakoa. Aniztasuna “errespetatzetik” harago, erdigunean jarri eta jolas, bizi eta deskubrimendurako aukera bihurtzea.

Metodologiari dagokionez tailerrak arte eszenikoetako (antzerki eta dantza garaikidea) tresna pedagogikoez eta gorputzaren ulermenaz baliatzen da.

NOLA?

“Ibiltzearen” kontzeptutik abiatzen den tailer honetan, bide hauek jorratuz burutuko da tailerra:

- Gorputzen aniztasuna oinarri koreografikotzat hartuz
- Barne eta kanpo behaketa burutu eta mimesiaren bitartez hurbilduz
- Narrazio biografikoak eta fikzioa nahastuz
- Memoria korporala eta gorputz adierazpena uztartuz
- Parte hartze inklusiborako teknikak aplikatuz

Erresistentzia arazo fisikoa da antzezlanaren sormen prozesuan burututako ariketak eta hausnarketak partekatuko dira nerabeekin.



KULTURA ESKOLAREN KATALOGOKO
PROIEKTUA

Dosier pedagogikoa

ANTZERKIA HEZKUNTZA ZENTRORA, ETA ALDERANTZIZ

Tailer honen zeharkako helburuetako bat **arte eszenikoak gazteengana hurbiltzea** da. Artista, arte gune (antzoki, jaialdi, etab.) eta hezkuntza komunitateen artean hurbilketa ahalbidetzea. Horregatik, tailerra burutzen den zentroan baina baita herrian/auzoan *Erresistentzia arazo fisikoa da antzezlan*a eskaintzen da. Nerabeek praktikan jarritako sorkuntza metodologiak jatorria eta hortik sortutako artefaktu artistikoa ezagutzeko aukera izango lukete, baita artista eta publikoaren arteko topaketa hitzartzekoa ere.

Prezioak eta info+ :

KULTURA ESKOLA

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/-/okerreko-ibiltariak-aparteko-ibiltariak->

Eskolentzako oinarrizko informazioa

ESKOLA KURRIKULUMAREN ARLOAK (EAE) : Gorputz Heziketa, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza / Etika eta Gizabide Hezkuntza, Euskara, Biologia (anatomia), Gizarte Zientziak

ZEIN BALIO SUSTATZEN DITU: inklusioa, aniztasun funtzionala, genero berdintasuna eta hezkidetzak, arte heziketa, pentsamendu kritikoa eta autoezagutza, parte hartzea

ZEIN IKAS MAILARI EDO ADINARI ZUZENTZEN ZAIO: 12-16 urteko nerabe eta gazteei zuzenduta, moldagarria adin bakoitzera.

IRAUPENA: 3 ordu, saio 1 (Ikus luzapen edota errepikapen aukerak amaieran)

ZENBAT IKASLEK PARTE HAR DEZAKETE EKITALDI BATEN: Gutxienez 6 pertsona, gehienez 24. Espazioa, taldearen berezitasun propioak eta unean-uneke Covid-19 protokoloen arabera adostua.

BESTE: harreman pertsonalizatua, behar zehatzetara moldaketa, euskaraz errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuz.

KONTRATAZIOA: Saio 1tik 5 saiotara aukeratu ahal izango da zentru berean talde desberdinek burutu dezaten tailerra, edota talde handiak banatu daitezkeen unean-uneke errealitatera egokitzeko. Prezio deseskalatua.

Osagarriak gehitzeko aukera:

– Luzapena: talde berean tailerra gehienez 6 ordurarte luzatzeko aukera egongo da, lan sakonagoa burutuz.

– Antzezlanak: ERRESISTENTZIA ARAZO FISIKOA DA antzezlanak emanaldi 1 edo gehiago.